

Ordizian, 2017ko apirilaren 3an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Jon Ander Caballero.	EH BILDU
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDIA:

- 1.-2017ko martxoaren 20ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
- 4.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:35



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2017ko martxoaren 20ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2017ko martxoaren 20ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 12 eta 14 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 117.457,16-€

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

- 6000 €tik beherako fakturak.

11 eta 13 zenbakidun zerrenden berri eman da.

Kopurua guztira: 45.926,73 €

Fakturei oniritzia eman zaie.

.....

- Peruko uholdeak

Alkate Jn.

Peruko herritar batzuk udaletxera hurbildu dira dirua batzeko ekitaldi bat antolatzeko herrialde horretan izandako uholdeengatik. Horrekin batera jakinarazi du Udalak ere, helburu horretarako diru apur bat bideratzeko aukera aztertuko duela.

Dubreuil Jn.

Horrelako egoera larrietarako, dagoen larrialdietarako urteroko partidaren (10.000€) erabilera irizpideak finkatu beharko lirateke. Egoera kopuru konkretu eta diru-laguntza kantitate jakinak zehaztea komeni da.

Sukia And

Irizpide horiek inpartzialtasunez definitzea zaila dela deritzo.

Aurten 2.500 € ordainketak egitea adostu da, 10.000 €ko mugarekin.

.....

- Kontratazioak

Alkate Jn

Udalean egindako kontratazio berriak aipatu ditu:

- 1.- Ondasun eta pertsonal administrariaren ordezkapena
- 2.- Kontu-hartzailetzako lan karga arintzeko laguntza

.....

- Kaleratzeak Stop plataformarekin bilera. Bihar, apirilak 4, 13'00etarako bilera deialdia egin da.

6.000 €ko partida bat dago plataforma honentzat baina plataformak uko egin dio horri eta Dubreuil jaunak, diru hori kaleratzeko zorian dauden pertsonen etxebizitza gastuak ordaintzera bideratzea proposatu du.

.....

- Orkli

Alkateak jakinarazi du Orkli eta Udalaren arteko akordioa prest, itxita dagoela sinatzeko.

.....

- Izapideen eskuliburua

IVAPEk eta EUDELEk antolatuta, proiektua lantzen hasi direla esan du Alkateak, eta azaroan bukatuko da.

.....

4.- Galde-eskeak.

- Javier Elizetxea SAREGINTZAkoak, EKIMENA programarekin lortutako emaitzak aurkeztu dizkie Batzordeko kideei

17 partaidetik 10ek besteren konturako kontratuak lortu dituzte eta bi pertsonak autoenpleguarekin aurrera egitea lortu dute.

Dubreuil jaunak Batzordeko kideei txostenaren kopia bidaliko diela esan du.

- Lanaldi erdirako berdintasun teknikariaren ordezkapena
- Beasaingo Udalaren formazio ikastaroak. Dubreuil jaunak galdetu du zertan datzaten ikastaroak. Ikastaroak bailara mailan egingo diren ala udal bakoitzak bere ikastaroak antolatu ditzakeen jakin nahi du.
- Sukia andreak: Kaleratzeak Stop plataformarekin eta finantza entitateekin bihar egingo den bilera irekia den jakin nahi du. Alkateak baietz erantzun dio baino ez dakiela nortzuk bertaratuko diren.
- Sukia andreak bihar, apirilak 4, 18'00etan Sasietako Administrazioa Kontseilua egingo dela dio eta bera ezin izango dela joan lana dela eta. Joseba Aranburu jauna da ordezkoa. Esango zaio eta dokumentazioa ere pasako zaio.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.